



HERRITAR XUMEAREN LEHENENGO PERTZEPZIOA

- Munduko txokorik apartatuenetan ere Coca-Cola, Nike, Sony, Nestle, etab. aurkitu daitezke
- Nazioarte mailako edozein burtsatako akzioak eta bestelako tituluak eskuragarri geratzen zaizkigu
- Tibeteko monjeek ere interneterako konekzioa dute
- Gure kotxeak munduko hainbat leku desberdinetatik bidalitako osagaiez osatutakoak dira
- “On line” bidezko erosketak eta ikasketak burutu daitezke
- Gure etxeak importatutako hainbat elektragailu eta ondasunez beteta daude (“made in...”)




HERRITAR XUMEAREN LEHENENGO PERTZEPZIOA

- Bi hitzetan esanda:
 - Ondasunak, zerbitzuak eta kapitalak inoiz baino eskuragarriagoak
 - Mundua inoiz baino txikiagoa bihurtu zaigu



KONTZEPTUAREN GAINEKO HURBILPENA

- Nahiko berba berria gure hiztegietan
- Erabilpen zabala, askotan gehiegizkoa
- Kontzeptu nahasia eta ambiguitasunez betetakoa
- Definizioak eta interpretazioak oso desberdinak
- *Bere esanahia argitzeko eta zehazteko beharra*




HERRITARREN PERTZEPZIOAK AZTERTZEN

- Ekidinezinezko egoera bat, zerutik jausitakoa (“mundua globalizatu egin da”)
- Prozesu aseptiko eta inbertsonala, horren gainean inork eraginik edo erantzukizunik ez balu bezala (“hori da munduak hartu duen norabidea”)
- Kontrolaezinezko fenomenoak, norberaren eskuetatik kanpokoa (“egin daitekeen gauza bakarra, egoera den bezalakoa onartzea eta amore ematea”)

JATORRIAK


Zenbait ikertzailek jauzi egin arren

- XV. mendearen amaieratik aurrera, XIX. azken urteetan edo XX.aren hasieran ematen diren hazkunde garaietara
- edo bloke sobietarraren erorketan 80eko amaieran eta 90ekoaren hasierara
- erreferentzia nagusia: 70eko hamarkada, krisia, ezegonkortasuna eta ziurgabetasunaren garaitzat hartuta, eta globalizazioa krisi honen aurrean ematen den erantzun gisa ulertuta, kapitalaren errentagarritasuna berreskuratu nahian ekonomiaren liberalizazio eta merkatuen zabalkundearen bitartez



GLOBALIZAZIOA DEFINITU NAHIAN


- Zein beste kontzeptu, ideia, edo errealitateri lotuta joaten da fenomeno hau?
- Zer gertatu da azken hamarkadetan globalizazioaz hitz egiteko aukera ematen diguna?



GLOBALIZAZIOA DEFINITU NAHIAN


Globalizazioaren inguruko bi ideia orokor:


- Harreman kapitalisten hedapena (geografikoki eta kopuruari begira ere)
- Nazioarte mailako eragileen arteko elkarmenpekotasun handiagoa



GLOBALIZAZIOA HARREMAN KAPITALISTEN HEDAPEN GISA


- 70eko hamarkadaren krisialdiaren ondorioz, 80ekoan Ongizate Estatuaren gainbeherakada mendealdeko herrialde industrializatuetan
- Monetaristek eta Eskaintzaren Ekonomiaren jarraitzaileek bultzatuta desarauketa, eta kapitalismo merkatuzaleago baten eraikuntza
- Hirugarren Munduko herrialdeetan NMF eta MB-ak inposatuta doikuntza programen aplikazioa (defizit publiko eta inflazioaren aurkako borroka: pribatizazioak, aurrekontu-murrizketak...)


- 
- Planifikazio zentralako herrialdeetan emandako eraldaketek trantsizio prozesu bat zabaldu dute kapitalismorantz
 - Duela hamarkada batzuk baino jende gehiago dago gaur egun harreman kapitalistenpean: produkzio, kontsumo eta inbertsio harreman kapitalistak gero eta hedatuago daude, eta gero eta era merkatuzaleagoan
 - Multinazionalak mundu mailara zabaltzen dute euren jarduera, merkatu berriak zabalduz, nazioarteko merkatuan errentagarritasuna bilatuz, edo ekoizpen prozesuaren faseak herrialde desberdinetan kokatuz



GLOBALIZAZIOA ELKARMENPEKOTASUN HANDIAGOKO EGOERATZAT HARTUTA

- Gobernu estatalak boterea galtzen hasiak dira (autonomia gutxiago ekonomi politika egiterakoan) euren ahalmena estatuen gaineko beste erakunde batzuetara pasatzen ari delarik
- Nazioarteko merkataritza eta kapital fluxuei dagokienez, elkartrukeak gero eta eragozpen eta traba gutxiagokoak dira gobernuen arteko akordio desberdinetan oinarrituta
- Garraio eta komunikazioen alorrean emandako aurrerapenek ondasun eta zerbitzuen zein informazioaren elkartrukea erraztu dute

- 
- AEBen hegemonia ekonomikoaren amaiera eta Europa, Japonia eta Asiako Ekialdeko herrialdeen konkurrentzia
 - Harreman ekonomikoetarako trabak desagertzen ari direnez, ekonomia bakoitzaren portaerak eragin handiagoa izango du besteetan
 - Produkzio eta kontsumo harreman kapitalistak gero eta hedatuago egoteaz gain, gero eta elkarri lotuago ere egongo dira enpresa transnazionalen jardueraren bitartez (merkatu berriak, laneku merkea, edo lehengaien eskurapena bilatuz eta ekoizpen prozesua zati desberdinetan banatuz)



Laburbilduz:

- mundu osoa erreferentzia geografiko gisa
- harreman ekonomiko kapitalisten hedapena
- harreman horiek gero eta libreagoak, hau da, gero eta traba gutxiagokoak direnez, nazioarteko elkartrukeen hazkundera eta elkarmenpekotasunaren handitzea eman da